



Martxoan hartuko du Bilbok kulturari buruzko Avignongo Foroa topaketa

Artista eta kultur eragileak kulturaz eta ekonomiaz gogoetan jarriko ditu ekitaldiak, martxoaren 5etik 8ra

Iñigo Astiz Bilbo

Kasu paradigmaticoa delako. Horregatik hautatu dute Bilbo. Ekonomiaren eta kulturaren topagunea izatea da Avignongo Foroa izeneko ekitaldiaren helburua, eta bost urte daramatza horretan. Zubi lanak egitea du xede. Eta esparru bateko eta besteko adituak biltzen ditu horretarako, urtero, zenbait egunez. Avignonen bertan (Frantzia) egin dute beti orain arte, baina aurreten topaketa beste hiri batzuetara eramatea erabaki, eta hala helduko da Bilbora. Laure Kaltenbach Avignongo bilkurako zuzendariak azaldu du, labor, arrazoiak: «Bilbon denbora luze gogoeta hitzartu dute enpresa munduko kideek eta kulturako eragileek. Oso arraroa da hori Europan, baina Bilbo da horren adibide». Eta horregatik bilduko dira Bilbon. Kultur industriaren eta alor ekonomikoaren uztarketa horregatik. Martxoaren 5etik 8ra izango da bilkura. Alondegian, eta hizlari zerrenda luzea egongo da bertan. Bestak beste, Vito Acconci artista eta arkitektoa, Katrin Jakobsdottir Islandiako Kultura ministro ohia, Saskia Sassen soziologoa eta Cristina Iglesias artista.

Topaketaren neurria eta kalitatea nabarmendu ditu Lourdes Fernandezek, Bilboko Alondegi-ko zuzendariak. Eta bertan parte hartuko duten hizlarien zerrenda aurkeztu du kalitate ziurtagiri modura. «Europar kulturari buruz egiten den bilkura handietariko bat da Avignongoa; oso handia neurritz, eta oso ona kalitatez». Kaltenbachek azaldu du ekitaldiaren funtsa: «Kulturaren mundua eta ekonomiaren munduaren arteko topagune izateko jarri genuen abian Avignongo Foroa. Susmoa genuen bi mundu horiek ez zutelako elkarrekin lotura handirik, eta elkarren mesfidantza zutela. Eta hori izan zen arronka: Nola berregin XXI. mendean kulturaren eta ekonomiaren arteko lotura?». Bost urte daramatzate galdera horri bueltaka, eta Bilbora helduko da orain haren oihartzuna.

Izan, programa zabalago baten parte da Alondegian egingo den bilkura. Europako beste bi hiritara ere eramanez du foroaren asmoa, Europako Batasunak bultzatutako Catalyse proiektuaren bidez. Essen (Alemania) egin



Avignongo Foroa duen garrantzia azpimarratu zuten antolatzaileek atzo Bilbon. LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS

zuten lehen bilkura, iaizko ekainean, *Kultura giltza da* lelopean; Avignonen egin zuten bigarrena, azaroan, *Kulturen botereak* lelopean; eta orain helduko da Bilbora. *Hiria kultur ekosistema gisa* izenburua izango du bilkurak bertan. Eta «ekosistema» horren eraikuntza eta erronkak izango dira hizketaldien muina. Lau mahai inguru antolatu dituzte horretarako. Lehena, sorkuntzan ekimen publikoaren eta pribatuaren arteko harremanari buruzkoa. Bigarrena, artistek hirietako kultura eta gizarte aldaketa sustatzeko duten betekizunari buruzkoa. Hirugarrena, hiriek kultura alda-

tzeko motor gisa duten garrantziari buruzkoa. Eta laugarrena, etorkizuneko erronkei buruzkoa.

Bilkura aurreko tailerra

Baina bilkuraren aurreko beste ekitaldi bat ere azpimarratu du Alondegi-ko zuzendariak. Hitzaldi nagusiak hasi aurretik martxoan jarriko duten RAW ekitaldia, hain zuzen ere. Tailer moduko bat izango da, eta 50 artista eta kultur sustatzaile baino gehiago bilduko ditu guztira. Bilboko sortzaileek eta bertako eragileek hartuko dute parte, eta hiriko esperientzia kultural eta artistikoa hartuko dituzte kontuan. Aste

batzuk lehenago hasiko dira lanean horretarako, baina martxoaren 5ean aurkeztuko dituzte ondorioak. Bilkurarako «beroketa ariketa» modura balioko du horrek, antolatzaileen hitzetan.

Inaki Azkuna Bilboko alkateak ere azpimarratu du bilkuraren garrantzia. 2008an izan zen bera Avignonen, eta argi azaldu du orain ekitaldia zergatik heldu den Euskal Herriraino. Bilboraino, zehazki. «Hemengo kasua paradigmaticoa da. Bilboko Gugenheim museoaren kasua paradigmaticoa da. Esperientzia horrek ez du soilik kultura ekarri hirira; dirua ere ekarri du».

↓ Topaketan izango diren hizlariak

- **Katrin Jakobsdottir.** Islandiako Hezkuntza, Zientzia eta Kultura ministro ohia.
- **Saskia Sassen.** Soziologoa.
- **Vito Acconci.** Artista eta arkitektoa.
- **Gail Lord.** Chicagoko Kultura Planaren arduraduna.
- **Tarek Txerkaoui.** Qatariko museoaren arduraduna.
- **Guadalupe Etxeberria.** Donostia 2016 Kultur Hiriburua programako kultura zuzendaria.
- **Jean Blaise.** Artista, Naoned hiriko turismoa sustatzeko proiektu kulturala sortzen dabilen enpresaria.
- **Beatriz Colomina.** Arkitektoa eta Princetongo Unibertsitateko katedraduna.

- **Juan Diego.** Bilbao Bizkaia Design & Creativity Council-ko idazkari nagusia.
- **Beatriz Garcia.** Politika kulturetan eta hiri eraldaketan aditua.
- **Evelyne Lehalle.** Parisko Orsay museo-ko kanpo harremanetarako zuzendaria, Frantziako Turismo Agentziako Kultura Saileko arduraduna eta arte komisarioa.
- **Joxean Muñoz.** Eusko Jaurilaritzako Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordea.
- **Maria Mur Dean.** Bilboko Consonni arte ekoizpen etxe-ko zuzendaria.
- **Jose Luis Rebordinos.** Do-

- nostriako Zinemaldiko zuzendaria eta zinema ikertzailea.
- **David Trueba.** Idazle eta zinema zuzendaria.
- **Jose Enrique Ruiz-Domec.** Erdi Aroko Historiako katedraduna.
- **Jochen Sandig.** Kultur enpresaburua eta Berlingo Kultur Politikako Zuzendaritza Batzordeko kidea.
- **Cristina Iglesias.** Eskultorea.
- **Patricia Brown.** Aholkularia.
- **Corinne Hermant de Callatay.** Analista Europako eta Eskualde Batzordeko Hiri Politikako Zuzendaritza Nagusiko langilea.
- **Alfonso Santiago.** Musika sustatzailea.
- **Pablo Gimón.** Kazetaria.